




## Nikasio eta Miguel Eskisabel: "Gure aita errespetuko gizona zen"



Lazkaon (Gipuzkoa) egin dugu hitzordua, Agauntza ondoan. Nikasio eta Miguel Eskisabel beren aita kable botatzen aritu zen garaiaz gustora aritu dira berriketan. Miguel ere aritu izan zen aitarekin lanean Pirinio inguruetan; Nikasio gutxiago, baina ondo ikasi zuen teknika, eta memoria fresko dauka oraindik.

### Kablea: asmakizun handia

Bixente Eskisabel (1899-1956) Artaditxulo baserrian jaio zen, Ataunen. San Gregorioko eskolan ibili zen baina baserriko seme bakarra izaki, laster hasi zen etxerako beharrean, soldadutzatik ere horregatik libratu omen zen. Segalari bikaina, apustu batzuetan ere aritu zen ataundarra.

Ez dakigu nondik okurritu zitzaion kablea baserri lanerako aplikatzea, baina haren semeek diote bere kabuz ikasi zuela: "Bere kasa hasi zian, ez beste inon. Baina kablea han sartzea samurra zuan", dio Nikasiok, Iratiko egur-kable erraldoiak gogoan. Lehen kablea hogei urte zituela jarri zuen, ondoren beste sei kable bota zituen etxerako eta batek daki zenbat kanporako. Bi anaien iritziz garrantzi handia izan zuen Ataunen Eskisabelen sistemak, "asmakizun handia izan zuan garai hartarako".

### Baserri lanetik basoko industriari

Noiz hasi zen Irati inguruan egur kableak jartzen? *El Irati* enpresako arduradunen bat joan omen zen Eskisabeli proposamena egitera, gogoan du Nikasiok hori: "Esaten ziaten Irati mendian ez zegoela egurrik ateratzerik, erreka zuloetatik nola aterako ziaten ba? Kablearekin!". Materiala emanez gero lortuko zuela esan zuen Eskisabelek eta besteak beste, 14 km-ko kablea bota zuen Orotz-Betelun (Nafarroa), lehenik gora, gero behera, kurba eginez... benetako ingeniari lana. Talentua zuen Artaditxulokoak, langilea baitzen eta erres-

petuko gizona: "Etxera etortzen zenean saguak zuloetan bezala ezkutatzen gintuan haren beldurrez!", diote Nikasio eta Miguelek.

### Heriotza iluna Iruñean

Egur kableak sartzen diru mordoxxka bat egin zuen. Egin kontu, herrian bi auto zeuden eta horietako bat berea. Baina dirua manejatzeak ez zion onik ekarri. Aitak sukaldean esandako azken hitzak gogoan ditu Nikasiok: "Niri jendeak eskatu egiten zidak eta nik eskatu beharra zeukeat". Zor bat kobratu nahian alde egin eta hurrengo egunean hilik aurkitu zuten Iruñean. Ez zen inoiz argitu.

Baina historia honek badu epilogorik. Eskisabel hil eta gutxira Iratiko ingeniari batzuk agertu ziren txofer eta guzti Ataungo base-rrira: "Gurekin oso ondo portatu zen eta tori diru hau" esan zioten emazteari. Miguelek aitaren lanbideari ekin zion ondoren: "Mendira kableak puskaka eraman eta han elkarri lotzen nitian". Azkeneko kablea 1954an bota zuten, Huescako Sarvise herrian.

Goiko erretratoan Bixente Eskisabel, Eskuinean: Nikasio eta Miguel, haren semeak. Kablegintzan aritu izan ziren biak ere.



### Istripua Konportako zerrategian

Kablea montatzeak eta baso lanak langile asko mugitu zituen: kablelari, basomutil, itzain, zerratzaile... Guztira 40 bat lagun bai. Horieta-ko bat, Jose Etxarri, istripuz hil zen Konportako zerrategian, pago-buruak dinamitz lehertzen ari zela. Zendu berri den Asteasuko Jazinto Irazu trontza lanean ibili zen Konportan eta gogoan zuen heriotza hura. Basoan aldiz, Etxa-

rri-Aranazko gazteak aritzen omen ziren, "zezena bezalakoak", zioen Irazuk.

1948 urte bukaeran, kablea karreetetan jaso eta langileekin afari bat egin ostean, egur esplotazioarekin amaitu zuten. Hala ere, enpresa ez zen 1950 arte desegin. Ernioko kablearen arrastorik ez da geratzen gaur egun, pista eta *todoterreroen* erreinaldian gauden honetan, aspaldiko kontua da hori. ■

gure!  
artean!  
euskaraz

BFA DFB  
Euzko Foru Alkandak  
Diputación Foral de Euzkadi